



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2016ko martxoaren 21ean, 19:30an, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. M.I.B.k lizentzia eskatu zuen, 18 metro karratuko egurtegi irekia jartzeko hiri lurreko 2 poligonoko 9 partzelan, *Landabide* etxearen eremuan. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea I. andreari, baldintza hauekin:

- Teilatuan teila jarri (Eraikuntzako Ordenantza Orokorraren 52. eta 54. artikulua).

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

- Egurtegiaren kokapenean Planeamendurako Arau Subsidiarioetako UA 2 unitateko bidea doa. Bide hori eraikitzen bada, egurtegia kendu beharko du.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu da.

2. M.A.I.k lizentzia eskatu zuen, *Goiena* etxeko inguruan daukan porlanazko zola berritzeko eta harrizko pareta eraikitzeke. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 12.442 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 373,26 euro.

3. M.E.A.k idazkia aurkeztu zuen, 1 poligonoko 119 partzelan (lurzoru urbanizaezina) oilaskoak gizentzeko hegazti ustiategia handitzeko eman zitzaion lizentzia luzatzeko eskatuz. 2010eko ekainaren 8ko alkatearen ebazpenean eman zitzaion lizentzia eta obrak bukatzeko epea luzatuz joan da. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, obrak bukatzeko epea luzatzea beste urte baterako, lizentziaren baldintzak mantenduz.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

José María Alzuri bilerara sartu da.

3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 81, 82 ETA BESTE PARTZELA BATZUK (ITUREN).

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak xedatzen duen prozedura jarraitu eta gero, 2015eko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zitzaion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketari, 2 poligonoko 81, 82 eta beste partzela batzuei dagokiona. J.A.O. eta I.A.E. dira espedientearen sustatzaileak.

Espediente osoa aurkeztu zen Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuan 2015eko azaroaren 5ean, behin-betiko onestea eskatuz.

Jarraian, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuak txostena eman zuen, agirian zuzenketa batzuk sartzeko eskatuz.

Txosten horren eskakizunak sartu dituzte sustatzaileek, aldaketako Testu Bategina osatuz.

Aurrekinak ikusirik eta arkitekto-aholkularien txostena eta Testu Bategina aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Bi poligonoko 81, 82 eta beste partzela batzuei dagokion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketaren Testu Bategina onestea. Behin-behineko onespentzat hartzen da erabaki hau.
2. Testu Bategina bidaltzea Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura, behin-betiko onespenerako.
3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 3 POLIGONOKO 11 ETA 12 PARTZELAK (AURTITZ).

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 3 poligonoko 11 eta 12 partzei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran. J.L.E.A., M.M.U. eta I.D.A. dira espedientearen sustatzaileak.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2014-000042 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz. Udal arkitekto aholkulariek ere txostena eman zuten.

Sustatzaileek agiria aldatua aurkeztu dute eta Udal arkitekto aholkulariek txostena eman dute, zenbait puntu aldatu edo osatu gabe utzi direla esanez .

Txostena irakurri eta gero, aho batez erabaki da txostena jakinaraztea sustatzaileei eta aipatzen dituen puntu guztiak azaltzeko eskatu, behin-behineko onespena eman ahal izateko espedienteari.

5. UE 1EKO BIRPARZELAZIOARI BURUZ.

Iturengo UE-1eko birzatiketa proiektuari eta urbanizazio proiektuari buruzko espedienteak aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez adierazten du:

1. Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Kontseilariaren 377/2008 Foru Agindua behin-betiko onetsi zuen, Iturengo 2 poligonoko 273 lurzatia eta 2 poligonoko 274, 275, 279 eta 21 lurzatiaren parte batean Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea —Iturengo landako UE-1—.

2. 2010eko otsailaren 16ko Osoko Bilkuran erabaki zuen Iturengo Udalak, behin-betiko onspena ematea Iturengo Udalak eta Promociones Lindutx Baztan, SLk sustatutako UE-1eko birzatiketa proiektuari eta urbanizazio proiektuari.

3. 2011ko urriaren 28an, 490/2011 epaia eman zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Gelak eta baliogabetu zuen aipatutako 377/2008 Foru Agindua eta, ondorioz, UE-1 garatzeko tresnak.

4. 2011ko abenduaren 2ko Osoko Bilkuran erabaki zen, UE- 1 unitateko birzatiketa proiektua eta urbanizazio proiektua baliozkotzea.

5. Berraztertze errekurtsoak jarri ziren baliozkotze akordioaren aurka, eta baliogabetu zen 2012ko martxoaren 20ko Osoko Bilkuran, berraztertze errekurtsoak onestea erabaki bai zen. Erabakia ez zen errekurritu eta irmoa bihurtu zen; ondorioz, UE- 1 unitateko birzatiketa proiektua eta urbanizazio proiektua deusezak dira 2012ko martxoaren 20tik aurrera.

6. BI POLIGONOKO LEHENGO 83 PARTZELAKO BIRPARTZELAZIOARI BURUZ.

Idazkariak irakurri du Udal arkitekto aholkulariek eman duten txostena, 2 poligonoko lehengo 83 partzelako birpartzelazioari buruz (egun 2 poligonoko 127, 128, 129 eta 130 partzelek osatzen dutena): ez dira lagapena egiteko, berdinbanaketarako eta urbanizatze betebeharrak betetzeko epeak konplitu; ez da aprobetxamenduaren %10eko lagapena ordaindu.

Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Arkitektoen txostena jakinaraztea sustatzaileei, M.A.O. eta beste batzuk.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Hiru hilabeteko epea ematea sustatzaileei, txostenak aipatzen dituen betebeharrak betetzeko.

7. ERREPIDE BAZTERRAKO ARBOLAK (2 POLIGONOKO 202 PARTZELA).

2 poligonoko 202 partzelan dauden arbol guztien adarrak mozteko baimenak eskatu zitzaizkien Kantauriko Ur-Konfederazioari eta Nafarroako Gobernuko Bideetako Zerbitzuari. Baimenak eman zituzten, 2016ko urtarrilaren 26ko Ebazpenean, Kantauriko Ur-Konfederazioak eta 117/2016 Ebazpenean, Herrilantako zuzendari orokorrak.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da gaitasuna duen enpresa bati ematea adarrak moztu eta ateratzeko lana. Lortzen den egurraren balioa enpresarentzat izango da, lanaren truke.

Jagoba Manterola bilerara sartu da.

8. 2016KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2016ko aurrekontua aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2016ko aurrekontuari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Aurrekontuaren zenbatekoa 770.058,46 eurokoa da dirusarrera eta gastuetan.

Gero, 2016ko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236 eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2016ko plantilla organikoari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Kontu hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

Langileen izenen zerrenda

Idazkaria: hutsik.

Kontu hartzailea: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 2. gradua. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrari laguntzailea: hutsik.

Administrazio-kontratudunen izenen zerrenda:

Idazkaria: Miguel José Belarra Tellechea.

Kontu hartzailea: Aitor Navarro Aristorena.

Lan-kontratudunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: Amaia Ochandorena Mindegua.

9. ZENBAIT ESKAERA.

1. J.A.M.O.k baimena eskatu zuen *Abatxakar* parajearen erori den haritz amerikar bat aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da M. jaunari saltzea arbola, 12 eurotan.

2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak xedatzen duen prozedura jarraitu eta gero, 2015eko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zitzaion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketari, 2 poligonoko 85 eta 86 partzeleki dagokiona. B.U.G. da espedientearen sustatzailea.

Espediente osoa aurkeztu zen Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Departamentuan 2015eko azaroaren 5ean, behin-betiko onestea eskatuz.

Jarraian, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuak txostena eman zuen, agirian zuzenketa batzuk sartzeko eskatuz.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Alegazio idatzia aurkeztu zuen sustatzaileak Lurraldearen Antolamenduko Zerbitzuan 2016ko otsailaren 1ean, eta haren kopia aurkeztu zuen Udaletxean ere. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuak erantzun zuen ez zela alegazioak aurkezteko momentua.

B.N.M.k idatzia aurkeztu du sustatzailearen izenean, espedienteari buruzko azalpenak eskatuz. Udal arkitekto aholkulariek txostena eman dute.

Txostena irakurri eta gero, aho batez erabaki da txostena jakinaraztea sustatzaileari eta eskatzen duena betetzeko eskatu, beharrezkoa den onespina eman eta Nafarroako Gobernuari bidali ahal izateko espedientea, behin-betiko onespenerako.

3. Aho batez onetsi da adierazpen hau, SEADen aldarrikapenaren 40. urteurrena dela eta:

“2016ko otsailaren 27an, 40. urteurrena bete zen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Iturengo Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHuko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.

Hori guztia dela eta, Iturengo Udalak ondorengoa adierazten du:

1. Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkaritza bakar eta legitimoa, NBek hala aitortua.

2. Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.

3. Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4. Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxa dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.

5. Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguen erakusgarri.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

6. Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eramanez daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

4. Errefuxiatuen inguruko ez-ohiko gailurretik atera den EBren eta Turkiaren arteko akordioa dela eta, aho batez erabaki da Europako bandera erretiratzea Udaletxeko balkoitik, Iturengo Udalaren protesta agertzeko.

5. J.A.M. eta beste batzuk eskatu dute baimena, Ibai-Aldea etxeko sarbidean farola jartzeko. Instalakuntza eta materialen kostua beraiek ordainduko lukete. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da farola jartzeko baimena ematea.

6. Aurkeztu duen eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki da Barne Formakuntza SLri baimena ematea, idazkera digitaleko ikastaroa emateko Herriko Etxean, urritik maiatzara arte.

10. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2016ko urtarrilaren 29koak, *Herriko Ostatuko* eta *Aurtizko Ostatuko* ordutegia luzatu zutena Inauterietarako; 2016ko martxoaren 9koa, katastroko balioak sartzea erabaki zuena; 2016ko martxoaren 15koa, hirigintzako legezketasunaren babesako espedientea hasi zuena, P.M.ren aurka; 2016ko martxoaren 21koa, Lindutx Baztan SLk jarri duen 33/2016 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoren berri hartu ondoren, espedientearen kopia epaitegira bidaltzea erabaki zuena.

11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Euskara Zerbitzuko 2015eko memoria eta 2016ko plangintza; F.G.k bidalitako emaila, *Berrian* ateratako albisteari buruz; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen esplotazioen erregistroan izandako mugimendua —L.F.en alta—; Kultur Ekintza Zerbitzuari egin zaion eskaera, ikuskizun bat egiteko herrian.

12. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:50a denean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.